

2015/07/28an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 28/07/2015.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Maidier Landa Ruiz de Azua
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2015eko uztailaren 28a, arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramón Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 28 de julio de 2015, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2015-06-13 eta 2015-06-25.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

2015eko uztailaren 23ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz, ondorengo erabakien berri eman da:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 00616

DATA: 2015/06/25

GAIA: *Zenbait batzorde informatzailereren lehendakaritza eskuordetzea*

ESPEDIENTEA: 2015IUDE0001

INTERESDUNA: *ESKORIATZAKO UDALA*

2015eko ekainaren 25ean eginiko osoko bilkuran 2015-2019 agintaldirako batzorde informatzaileak eta horien izenak onartu ditu Udalbatzarrak.

Batzorde informatzaileen lehendakaritza Alkatetza honen eskumena den arren, zenbait batzordetako lehendakaritza udalbatzarkide batzuegan eskuordetzea nahi da batzorde horien funtzionamendua arinagoa izan dadin. Eskuordetza apirilaren 21eko 11/1999 Legearen bitartez Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.c) artikuluari emandako erredakzioaren arabera egingo da.

Ikusita Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

2015 /07/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno aordinario

1.- 2015eko ekainaren 25ean osoko bilkuran sortutako zenbait batzorde informatzailearen lehendakaritzak eskuordetzea ondoren aipatzen diren udalbatzarkideei:

- *Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzailea: Lehendakaria: Josu Miren Ezkurdia Santa Maria*
- *Gobernu eta Finantzak batzorde informatzailea: ez da eskuordetzen.*
- *Zerbitzu Sozial eta Integrazio batzorde informatzailea. Lehendakaria: Maite Uribe Beristain*
- *Kultura, Kirola eta Euskera batzorde informatzailea. Lehendakaria: Maria Purificación Regidor Varela.*
- *Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzailea. Lehendakaria: Maite Zubia Atxaga.*

2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Eskoriatzan, 2015eko ekainaren 25ean.

ALKATEA,

=====

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 00592

DATA: 2015/06/18

GAIA: KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

ESPEDIENTEA: 2015eko aurrekontuari egindako 5. kreditu aldaketa

INTERESDUNA:

Idazkari-kontuhartzaileak 2015eko aurrekontuari egindako 5. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).

Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

2015 /07/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno aordinario

1.-. Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2015eko aurrekontuari egindako 5. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 21.822,77€.

Eskoriatzan, 2015eko ekainaren 18a

ALKATEA,

=====

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 00625

DATA: 2015/06/26

GAIA: KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

ESPEDIENTEA: 2015eko aurrekontuari egindako 6. kreditu aldaketa

INTERESDUNA:

Idazkari-kontuhartzaileak 2015eko aurrekontuari egindako 6. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).

Espediente osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau

1. ERABAKI DUT

1.-. Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2015eko aurrekontuari egindako 6. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 15.000,00 €.

Eskoriatzan, 2015eko ekainaren 26a

ALKATEA,

2015 /07/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno aordinario

3.- ZINEGOTZI HAUTATUAK KARGUA HARTZEA.

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Edorta Barandiaran Garciak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitortpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen; eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Edorta Barandiaran Garcia jaunari bere kargua eman dio.

4.-ALKATEAREN DEDIKAZIO PORTZENTAJEAREN ETA ORDAINSARI MAILAREN GAINEKO ERABAKIA.

Udal berria eratuta, bidezkoa da udal antolaketari eta funtzionamenduari buruzko erabakiak hartzea Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legean eta horrekin bat datozen gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Horietako alderdietako bat da udalbatzarkideen artean bere karguan zeintzuk arituko diren erabateko dedikazioz eta zeintzuk dedikazio partzialez erabakitzea.

Gai hori Toki Araudiaren Oinarriak Arautzen dituen Legearen 75. artikulua arautzen du, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 13. artikuluekin bat datorrena.

Horregatik guztiarengatik, Rafael Bernalen abstentzioarekin eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzar honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatuko diren gobernu taldeko kideen ordainsari maila ezartzea:

- Alkatea: 43.019,90 € gordin urteko eta erabateko dedikazio erregimenean.

Liberazio hori udal lanetarako beharrezko dedikazioarekin justifikatzen da.

Bigarrena.- Alkateak dagozkion ekitaldietako udal aurrekontuetan ezarritako ordainsariak jasoko ditu. Ondorio horietarako, alta emango zaio Gizarte Segurantzari, eta Udalak bere gain hartuko ditu dagozkion enpresa kuoten ordainketak.

Hirugarrena.- Erabakiak 2015eko irailaren 1etik aurrera izango du eragina.

Laugarrena.- Udal kontuhartzaitzari eta giza baliabideen udal departamentuari erabakia jakinaraztea jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bosgarrena.- Izendapen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

**5.- HAINBAT ERAKUNDE ETA ELKARTEETARAKO UDAL ORDEZKARIAK
IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritik, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du ondoren adieraziko diren erakundeetarako udal ordezkari jarraian adierazitako zinegotziak izendatzea:

- **EUDEL:** Jose Ramón Zubizarreta Alegria
- **UR KONTSORTZIOA:** Jose Ramón Zubizarreta Alegria
- **LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO, ALMENEKO, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ESKOLA KONTSEILUAK:**

Titularra: Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Ordezkoa: Maria Purificación Rregidor Varela

- **MUSIKA ESKOLA:** María Purificación Regidor Varela
- **LANBIDE HEZIKETAKO PATRONATUA:** Maite Zubia Atxaga
- **DOILAN S.COOP:** Jose Ramón Zubizarreta Alegria
- **JAKION:** Jose Ramón Zubizarreta Alegria
- **ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA:** Josu Ezkurdia Santa María
- **21 AGENDA KO PROZESUAK EZARTZEKO ARDURADUNA:** Josu Ezkurdia Santa María
- **GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEKO ERREKTORE KONTSEILUA:** Jose Ramón Zubizarreta Alegria
- **AIZKORRI-ARATZ PARKEKO PATRONATUA:** Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
- **JOSE ARANA PATRONATUA:**

* **EAJ-PNV Eskoriatzako udal taldea:** Jose Ramón Zubizarreta Alegria, Maria Purificación Regidor Varela, Maite Uribe Beristain.

- * **Eskoriatzako EH BILDU.** Aitor Zubizarreta Alegria, Dorleta Leceta Uribetxebarria
- * **Eskoriatzako Elizateen Elkartea.(E.E.E.):** Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
- * **IRABAZI ESKORIATZA (Ezker Anitza-IU, Equo, Independientes).** Rafael Bernal Gato

6.- UDAL ERREGELAMENDU ORGANIKOAREN 17., 20. ETA 32. ARTIKULUAK **ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasiara batean eta ondoren esango den moduan onartzea Eskoriatzako Udalaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduaren aldaketa, testua sakonago aztertu ondoren denbora gutxira bestelako aldaketak egitearen kaltetan gabe.

- **Honako hau dioen lekuan:**

17. artikulua. *Batzorde informatzaileak eta horien eskumenak honako hauek izango dira:*

1.- HIRIGINTZA BATZORDE INFORMATZAILEA. *Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:*

1.1.- *Hirigintza zerbitzua.*

1.2.- *Obrak eta zerbitzuak zerbitzua.*

1.3.- *Elizateak eta azpiegiturak zerbitzua.*

2.- OGASUNA ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA. *Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:*

2.1.- *Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia.*

3.- GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEA. *Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:*

3.1.- *Gizarte Zerbitzuak.*

3.2.- *Prebentzio zerbitzua.*

3.3.- *Berdintasun zerbitzua.*

3.4.- Osasun zerbitzua.

3.4.- Migrazio zerbitzua.

4.- KULTURA BATZORDE INFORMATZAILEA. Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:

4.1.- Kultura zerbitzua.

4.2.- Euskara zerbitzua.

4.3.- Jaiak zerbitzua.

4.4.- Hezkuntza zerbitzua.

4.5.- Gazteria zerbitzua.

4.6.- Kirol zerbitzua.

5.- GARAPEN JASANGARRIA BATZORDE BEREZIA.

Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:

5.1.- Ingurumen zerbitzua.

5.2.- Turismo zerbitzua.

5.3.- Ekonomia eta enplegu zerbitzua.

6.- KOMUNIKAZIOA ETA PARTE-HARTZE BATZORDE INFORMATZAILEA.

Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:

6.1.- Euskara zerbitzua.

6.2.- Komunikazio zerbitzua.

6.3.- Parte-hartze zerbitzua.

7.- GOBERNU ETA PERTSONAL BATZORDE INFORMATZAILEA. Ondorengo zerbitzuetako gaiak landuko ditu:

7.1. Pertsonal zerbitzua.

7.2.- Udal gobernu zerbitzua.

V. KAPITULUA: AZPIBATZORDEAK

20. artikulua: azpibatzerdeak

- *Hirigintza azpibatzerdea.*
- *Obrak eta Zerbitzuak azpibatzerdea.*
- *Elizateak eta Azpiegiturak azpibatzerdea.*
- *Ogasuna eta Kontuen batzorde berezia azpibatzerdea.*
- *Gizarte zerbitzuak azpibatzerdea.*
- *Migrazioa azpibatzerdea.*
- *Prebentzio zerbitzua azpibatzerdea.*
- *Berdintasun azpibatzerdea.*
- *Osasun azpibatzerdea.*
- *Kultura azpibatzerdea.*
- *Euskara azpibatzerdea.*
- *Hezkuntza azpibatzerdea.*
- *Gazteria azpibatzerdea.*
- *Kirol azpibatzerdea.*
- *Jaiak azpibatzerdea.*
- *Ingurumen azpibatzerdea.*
- *Turismo azpibatzerdea.*
- *Ekonomia eta Enplegu azpibatzerdea.*
- *Parte-hartze azpibatzerdea.*
- *Komunikazio azpibatzerdea.*

- *Pertsonal azpibatzerdea.*
- *Udal Gobernu azpibatzerdea.*

32. artikulua. MOZIOAK

Mozio bat gai-zerrendan sartzeko beharrezkoa da zinegotzi batek eskatu izatea eta Erregelamendu honen 21. artikuluan zehaztutako epeak betetzea. Moziorik egonez gero, plenoko deialdiarekin batera helaraziko zaie zinegotziei.

Honako hau esatea:

17. artikulua. Batzorde informatzaileak eta horien eskumenak honako hauek izango dira:

Batzorde informatzaile bakoitzaren eskumeneko izango diren gaiak, batzorde kopurua eta horien izenak Udalbatzarrak finkatuko ditu, Alkatetzak proposatuta, Udalbatzarra eratu eta hurrengo 30 egunen barruan, eta bat etorri beharko dira Udalak une bakoitzean duen antolamendu egiturekin.

V. KAPITULUA: AZPIBATZERDEAK

20. artikulua: azpibatzerdeak

Azpibatzerdeen kopurua eta izena Udalbatzarraren erabakiz finkatuko dira Alkateak proposatuta, eta batzorde informatzaile bakoitzaren eskumeneko gaiekin bat etorri beharko dira.

32. artikulua. MOZIOAK

Mozio bat gai-zerrendan sartzeko beharrezkoa da zinegotzi batek eskatu izatea eta Erregelamendu honen 28. artikuluan zehaztutako epeak betetzea. Moziorik egonez gero, plenoko deialdiarekin batera helaraziko zaie zinegotziei.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, araudia behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

7.- EH BILDUREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILEETAN PARTE HARTZEKO.

Udalbatzarrak 2015eko ekainaren 25ean egindako bilkuran EH BILDU udal taldeak erabaki gabe utzi zituen KULTURA, KIROLAK ETA EUSKARA BATZORDE INFORMATZAILEKO ETA INTEGRAZIO ETA GIZARTE ZERBITZUAK BATZORDE INFORMATZAILEKO kide izateko talde horrek proposatu beharreko zinegotziak.

Aitor Zubizarreta Alegriak EH BILDUK egiten duen proposamena jakinarazi du Gobernu eta Finantza Batzorde informatzailean:

- KULTURA, KIROLAK ETA EUSKARA BATZORDE INFORMATZAILEA: Edorta Barandiarán Garcia
- INTEGRAZIO ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEA: Aintzane Agiriano Errasti.

Berlaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

8.- HERRIKO JAI EGUNA 2015-ERA KO PROPOSATZEA.

Aho batez erabaki da 2016rako HERRIKO JAI eguna ekainaren 29an, San Pedro eguna, izatea.

9.- ESKAERA ESKORIATZAKO ALKATEARI HONDAKIN BILKETA SISTEMA HERRI KONTSULTA LOTESLE BIDEZ AUKERATZEKO ETA HERRITARREN PARTE HARTZE ERREGELAMENDU BAT EGITEKO DAGOZKION TRAMITEAK HAS DITZAN.

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

1.- Eskaera egitea Eskoriatzako Alkateari hondakin bilketa sistema herri galdeketa lotesle bidez aukeratzeko dagozkion tramiteak has ditzan.

2.- Herritarren parte hartze erregelamendu bat egiteko dagozkion tramiteak hasteko eskatzea Eskoriatzako Alkateari.

10.- 2014KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2014ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren eta Telesko Udal Telebista fundazioaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren eta Telesko fundazioaren aurrekontuen kitapenak.

2015eko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2015eko maiatzaren 25ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2014ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2015eko maiatzaren 19an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2015eko maiatzaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

11.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzailearen diktamena ikusi da.

Diktamena botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

(*)KONTZEP/EPEA/ZKI A	ZENBATEKO A (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
001,201401,546	102,17	CALZON MARIANO JOSE MANUEL	2009KO BEHIN BETIKO BAJA
ISUNA 2014/243	60,00	PEREA ORIVE JOSE MANUEL	2014AN ALEGAZIO ONARTUTA
ISUNAREN KOSTEAK 2014/243	4,00	PEREA ORIVE JOSE MANUEL	2014AN ALEGAZIO ONARTUTA

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

12.- SANTA ANA 1-2, 3 ETA 4-4B ERAIKINETAN TERMITA IZURRITEA KONTROLATZEKO ETA ZAINTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

Santa Ana 1-2, 3 eta 4-4B eraikinetan termitak akabatu eta izurritea kontrolatzeko zerbitzua kontratatzeako tramitatutako espedientea ikusi da.

Hirigintza batzorde informatzaileak proposatuta, 2015eko uztailaren 17ko Alkate erabakiz honako hau erabaki zen:

1.- Hitzarmen bat egitea Eskoriatzako Udalaren eta Santa Ana auzoko 1-2 eta 4-4B zenbakietako jabekide komunitateen arteko lankidetzaren erregimena arautzeko. Lankidetzaren hori Santa Ana 1, 2, 3 eta 4-4B zenbakietako eraikinetan dauden termitak akabatzeko eta izurritea kontrolatzeko zerbitzua kontratatzeako eta finantzatzeko da.

2.- Kaltetutako jabekide komunitate bakoitzak egin beharreko diru ekarpenak eta horiek egiteko epeak finkatzea.

Termitak akabatzeko zerbitzua kontratatzea Alkatearen eskumena da, duen kostuarengatik bere eskumenen barruan sartzen delako, baina, izurritea kontrolatzeko zerbitzuaren esleipena Udaltzarrari dagokio, gastu hori hainbat urtetan egitekoa baita, zehazki, hurrengo 4 urtetako

ekitaldiei eragiten die, eta horregatik guztiarengatik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ANTICIMEX 3D Sanidad Ambiental enpresari esleitzea Santa Ana 1-2, 3 eta 4-5 eraikinetako termita izurritea kontrolatzeko eta zaintzeko zerbitzua 2016, 2017, 2018 eta 2019rako honako prezioetan: 1.653,85 euro (BEZ barne) 2016an, eta 1.324,95 euro urteko (BEZ barne) 2017rako, 2018rako eta 2019rako. Kontratu hori kontratistak 2015eko maiatzaren 4ko memorian (erref.:15060450641) eskainitako gainerako baldintzei lotuta egongo da.

Bigarrena.- Zerbitzu horren kostua finantzatzeko hainbat urtetarako gastua onartzea 2.978,8 euroko gastu osoarekin, honako aldietan banatuta:

2016: 1.653,85 €

2017, 2018 eta 2019: 441,65 euro urteko.

Hirugarrena.- Gastua ekitaldi bakoitzean finantzatuko da ekitaldi bakoitzerako gastu aurrekontuan izendatutako aurrekontu aplikazioaren kargura.

13.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEAGATIK (EKAINAREN 16TIK UZTAILAREN 15ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK EGINDAKO FAKTURA ORDAINTEZKO AGINDUA.

Aho batez erabaki da gaia gai zerrendan sartzea.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko uztailaren 15ean egindako 10 faktura aurkeztu ditu (151402 zenbakitik 151411 zenbakirakoak), 2015eko ekainaren 16tik uztailaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Uztailaren 22an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko ekainaren 16tik uztailaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2015eko uztailaren 15ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (151402 zenbakitik 151411 zenbakira, biak barne) ordaintzeko agintzea.

Erabakia hartuta, eta kontutan izanik ez dela aurreikusten abuztuan osoko ohiko bilkurarik egiterik, aho batez honako hau ERABAKI DA:

- 2015eko uztailaren 16tik abuztuaren 15era bitartean emandako zerbitzuei dagokion faktura ordaintzeko agintzea Alkateari.

- Hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzuari buruz idazkaritza-kontuhartzaitzatik jartzen diren eragozpenek sortutako egoera erregularizatzeko konpromisoa hartzea, eta horretarako, udal zerbitzu teknikoei eta arloko zinegotzi arduradunari, aurrez dagozkion tramiteak egin ondoren, udalbatzar honi proposamen bat egiteko eskatzea urriko ohiko bilkuran kontratazio espedientea ireki ahal izateko.

14.- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK JARRITAKO ERAGOZPENAK 2015-EKO BIGARREN HIRUHILEKOAN.

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezketasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2015eko apirilaren 1etik 2015eko ekainaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrari jakinarazten zaizkion erabakien eta eragozpenen berri:

1.- 00388 erabakia. Axtrokiei buruzko diptikoak banatzeko zerbitzuaren gastu onarpena eta ordainketa agindua.

GASTUA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTURIK EZ EGOTEARREN EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA (faktura falta da).

2.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako ERAGOZPEN-TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA, EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2015eko 2.a)

3.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako ERAGOZPEN-TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA, EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT).

(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2015eko 3.a)

4.- 00470. erabakia- ZALDIBAR ANTZOKIAN egindako hainbat elektrizitate lanen ordainketa agindua.

KONTRATURIK EZ EGOTEAGATIK EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA (esleipen erabakia falta da).

5.- 00471. erabakia- ZALDIBAR ANTZOKIARAKO estoreak ekarri eta jartzearen gastu onarpena eta ordainketa agindua.

KONTRATURIK EZ EGOTEAGATIK EGINDAKO ERAGOZPEN-TXOSTENA (esleipen erabakia falta da).

15.- ESKORIATZAKO PRESOEN LAGUNAK TALDEAREN IZENEAN EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Hitza eman ondoren, onar dadin bere taldeak udalbatzarrera ekartzen duen mozioa irakurri du Aitor Zubizarretak.

Ondoren transkribatzen da osorik mozioaren testua:

Euskal gizartea konponbidearen aitzinean urrats garrantzitsuak ematen ari den arren, Espaniar eta Frantziar Estatuak egoera lehengoan mantentzeko saiakera itsuan jarraitzen dute. Gorroto eta mendeku politikaren ondorioek egunero bizi ditugu gure herrian ere eta horren adibide dugu, uztailaren 6an lau eskoriatzar Esapiniako Audientzia Nazionalen deklaratzera deituak egotea.

Egoera horren aurrean zera adierazi nahi dugu:

1981ean, polizi nazionalaren Gasteizko ziegatan, torturapean zinatutakoak epailearen aurrerean berrestera deitzeak:

1.- Ez duela inongo zentzurik egun bizi dugun bake prozesu honen baitan, eta gogor salatzen dugu Espaniar Estatuaren gorroto eta mendeku politika.

2.- Euskal herritarren aurka behin eta berriz erabili den eta erabiltzen den tortura sistematikoa salatzen dugu, eta berriz gerta ez dadin neurriak hartzeko eta tortura salaketak ikertuak eta epaituak izatea eskatzen dugu.

Amaitzeko: gure babes osoa eman nahi diogu Guenetxea-Iparragirretar sendiari eta konponbide demokartikoaren bidean pausoak ematen jarraitzeko konpromisoa sendoa berresten dugu.

Hitz egiteko txanda emanda, honako hauek hitz egin dute:

* Josu Ezkurdia (EAJ/PNVren izenean): gu ez gaude ados mozio honetan esaten denarekin, aurka bozkatuko dugu, eta gai horri buruz alde bozkatuko dugun mozio bakarra ETAri betirako desagertzeko eskatzekoa izango da. Horregatik, aurka bozkatuko dugu.

* Iñaki Kerejeta (EEE): gure taldean ideologia ezberdineko pertsonak daudenez, gu abstenitu egingo gara.

- Rafael Bernal (IRABAZI): Eskoriatzako IRABAZI uste du euskal gizartea dela gatazka gainditzeko ahalegin handia egiten ari dena. Bere aldetik, Espainiako gobernuak immobilismo estrategia politikoarekin jarraitzen du, eta jarrera horrek ez du laguntzen gatazka konpontzeko bidean, are gehiago, zaildu egiten du. Gu ere bat gatoz esaterakoan ez duela zentzurik 4 eskoriatzar deklaratzera eramatea 1981ean sinatutakoagatik, tortura mota guztiak gaitzesten ditugu eta gatazka demokratikoki konpontzearen alde gaude. Hori esanda, uste dugu aurkeztutako dokumentuak manifestu itxura duela, eta nahiz eta, orokorrean, adierazi nahi dituen ideiekin bat etor bagaitezke ere, ez gatoz bat erabilitako formekin. Gure ikuspuntutik “*Espaniar Estatuaren gorroto eta mendeku politika*” moduko esaldiak ez lirateke egon behar mota honetako dokumentuetan, eraikitzailetik gutxi duen dialektika transmititzen duelako, ez dioena kontsentsuari laguntzen

*Aitor Zubizarretak, EAJ/PNVko bozeramaleari zuzenduz, galdetzen dio ea bakarrik ETArri eskatzen dioten desagertzeko, eta uste ahal duten herri honetako egoera ETArri bakarrik desagertzeko eskatuz konpondu daitekeen. Esaten du gatazka ETA baino lehenagokoa dela, ETAk urratsak eman dituela, dena eskaini duela, armak entregatzea ere bai, eta galdetzen du ea nork jartzen dizkion oztupoak armak entregatzeko.

*Josu Ezkurdiak erantzun dio argi dagoena dela gizartea ETA desagertzeko eskatzen ari dela, eta bere taldeak ETArri desagertzeko eskatzen dio mozioaren alde bozkatuko duela bakarrik.

* Aitor Zubizarretak esan du gizartearen izenean hitz egitea erraza dela, eta gizarteak benetan nahi duena arazoa konpontzea dela, eta arazoa ez dela konpontzen ETA desagertuta, arazoa ez zelako ETArekin sortu; arazoa, esan du, herrian dago, ez delako bere nortasuna aitortzen. Arazoarekin jarraituko dugu, hemen, torturak, hilketak, sufrimenduak maila guztietako jendeari eragiten diolako, alde bietakoei, ez dio alde bakarrari eragiten, herri osoari eragiten dio, eta herria da hori guztiori jasaten ari dena. Eta herriak konponbidea eskatzen du, eta konponbiderako denok eman behar ditugu urratsak. Alde bakoitzak ahal duena egin beharko du, baina, ezin dena egin da “besteak egin dezala” eta “gero ikusiko dugu”. Noiztik esan zaigu ETAk bere jarduera utziz gero edozertaz hitz egin

daitekeela eta edozer egin daitekeela? Zenbat aldiz entzun dugu hori? Zenbat denbora da bere jarduera eten zuela? eta... bakarrik bera desagertu dadila?

Hitz egiteko txanda amaituta, 5 zinegotzik (EAJ/PNV) aurka bozkatuta, 2 abstenituta (EEE eta IRABAZI) eta 4k alde bozkatuta (EH BILDU), ez da onartu mozioa.

16.- GALDE-ESKEAK.

16.1.- Eskoriatzar baten kexa Olaetako konpost komunitarioa kentzeagatik.

Bere izen-abizenak esan ondoren, Jose Mari Cortazarrek, Olaeta auzoan egokitutako gunean konpost komunitarioa egiten aritu diren auzotar talde baten izenean, bere haserrea, atsekabea eta sumindura agertu du gune hori kentzeko Udalak izan duen jokaeragatik. Zalantzan jarri du esaten dutena: gune horretan usainak sortzen zirela eta euliak egoten zirela -berak onartu duenez, euriengatik udaberrian, une batean, egon zen arazoa izan ezik, teknikarien aholkuekin konpondu zena-. Bere kexa Udalak jardun duen moduagatik da: gune horretako erabiltzaileei kontsultatu gabe, beste gune alternatibo bat proposatu gabe, eta, hori bai, azkartasun eredugarriarekin, beste udal kontu batzuetarako nahiko lukeena (txakur kakak, utzitako zabor-poltsak, rallyak...). Bere ustez zuzenena irailera arte itxarotea eta zalatzaileek, erabiltzaileek eta teknikariek osatutako batzordea deitzea izango zatekeen. Sinaduren pean jardun duela esan dio gobernu taldeari. Joan zen ostiralean jaso zuten idazkiko hitzei buruzko kexa ere azaldu du, eta esan du idazkia amaitzeko "zintzilikarioak erabiltzera itzuli beharko zarete" jarri beharrean "beste gune alternatibo bat aurkituko dugu" jarriz amaitu zitekeela. Bere txandan behin eta berriz esan du kendu den gunea eredugarria zela, eta bertan kalitate oso oneko konposta lortzen zela. Amaitzeko, egindakoari buruz gogoeta egiteko eta egindakoa zuzentzeko eskatu du.

Josu Ezkurdiak, departamentuko zinegotzi arduradunak, Jose Marik egindako ekarpenak eskertu ditu, eta adierazi du, zati batean bat egiten duela berarekin, baina, ez guztian. Argitu du bere taldea konpostajearen alde dagoela, baina, pertsona talde handi bat (28 pertsona) sinadurekin kexatu dela gune horrek arazoak sortzen zituelako -bere ustez justifikatuak-, eta helburu nagusia kexa horiei erantzutea izan dela. Aitortzen du beharbada idazkia ez zegoela oso zuzen idatzita, baina, jakinarazi du teknikariari esan diola konpostaje komunitarioa egiteko beste gune alternatibo bat bilatzen hasteko, guztiontzat aproposagoa izango den gune bat proposatu ahal izateko irailan.

16.2.- Olaetako konpostaje gune komunitarioari buruz Aitor Zubizarretak egiten dituen galderak.

Erantzun zehatzak jaso nahiko lituzkeela zehaztu ondoren, honako galderak egin ditu:

Lehenengoa: konpostaje guneko erabiltzaileei joan zen ostiralean bidalitako idazkian esaten da "udalak hartu duela erabakia." Nor da Udala? Alkatea? Gobernu taldea? Alkatea eta zinegotzi guztiak?

Bigarrena: zenbat kexa aurkeztu dira?

Hirugarrena: Txosten teknikoa egin da? Egin bada, zer esaten du txostenak? Ez bada egin, zer irizpideren arabera hartu duzue erabaki hori?

Laugarrena: konpostajea egiten zuten erabiltzaileekin hitz egin duzue?

Bosgarrena: esan duzue sinadura bilketa egon dela, eta etorkizunean egon daitezkeen antzeko egoerei begira, zenbat sinadura behar dira gai bat lehentasunezkoa izan dadin gobernu taldearentzat eta inolako zalantzarik gabe egin dadin? Nahikoa dira 28?

Seigarrena: zein izan da jarduera horren helburua? Gunea beste nonbaitera alda zitekeen? Esan duzu teknikariarekin egon zarela, jakizu berari galdetzeko asmoa dudala.

Josu Ezkurdiak erantzun dio hau ez dela prozesu judizial bat eta galdera horiei guztiei lehen erantzun diela.

Alkateak erantzun dio bere ustez nor den Udala, ez zela egin ez eskatu txostenik gune horretan konpostaje komunitarioa jartzea erabaki zenean, berak ere ez dakiela zergatik jarri zen han eta ez 5 m urrutiago. Kexak nahikoa diren edo ez, ba ez dakiela esan du, baina, norbanakoen kexak ere jaso dituela eta erantzun ere bai, eta zenbat sinadura behar diren, ba, ez dakiela, ez dagoela ezer araututa, baina, beraiantzat nahikoa izan direla, eta horregatik egin dela.

Eztabaidak antzeko bidetik jarraitu du, eta alkateak amaitutzat jo du esanez gauza batzuetan asmatuko dutela eta beste batzuetan ez, baina, beraiak beraien irizpideen arabera jardungo dutela, jendeari entzuten saiatuko direla, baina, beraien irizpideen arabera jardungo dutela.

Aitor Zubizarretak galdetu dio zeintzuk diren irizpide horiek, eta alkateak erantzun dio gai bakoitzak bere irizpidea duela, eta autokonpostajeari buruzko gai honetan esan zitzaizkion teknikariari beste alternatiba bat aurkitzeko.

16.3.- Guenetxea-Iparraguirre familiako ordezkari batek esandakoa.

Hitza eman ondoren, Guenetxea-Iparraguirre familiaren izenean eta gobernu taldeari zuzenduta, Maita Iparraguirrek adierazi du herritarrak diren aldetik, ez litzatekeela soberan egongo babesa ematea bere garaian eta egoera hartan -bere esanetan, torturapean- egindako deklarazio bat berrestera lekuko gisa Madrilera derrigorrez joan behar dutenei.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:30ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACION DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES

Por encontrarlas conformes, son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el día 13/06/2015 y el día 25/06/2015.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 23 de julio de 2015 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se informa sobre las siguientes resoluciones:

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

NÚMERO: 00616

FECHA: 2015/06/25

ASUNTO: *Delegar la presidencia de determinadas comisiones informativas*

EXPEDIENTE: 2015IUDE0001

INTERESADO: ESKORIATZAKO UDALA

Resultando que mediante acuerdo plenario de 25 de junio de 2015 se ha aprobado el número y denominación de las comisiones informativas para el período de mandato 2015-2019.

Considerando que, si bien la presidencia de las comisiones informativas es competencia de esta Alcaldía, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.c) de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, según redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, es propósito delegar dicha presidencia en varios Corporativos municipales con el fin de favorecer una mayor agilidad en el funcionamiento de tales comisiones.

Visto lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 44 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre:

2015 /07/28
Ohiko Osoko Bilkura
Pleno ordinario

HE RESUELTO

1. *Delegar la presidencia de determinadas comisiones informativas, creadas por acuerdo plenario de 25 de junio de 2015, en los corporativos que se relacionan a continuación:*

— *Comisión Informativa de Movilidad y Urbanismo: Presidente: Josu Miren Ezkurdia Santa Maria.*

— *Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas: no se delega.*

— *Comisión Informativa de Integración y Servicios Sociales. Presidenta: Maite Uribe Beristain.*

— *Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Euskera. Presidenta: Maria Purificación Regidor Varela.*

— *Comisión Informativa de Desarrollo Económico Sostenible. Presidenta: Maite Zubia Atxaga.*

2. *Publicar la presente resolución en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.*

En Eskoriatza, a 25 de junio de 2015.

EL ALCALDE

=====

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

NÚMERO: 00592

FECHA: 2015/06/18

ASUNTO: APROBAR EL EXPEDIENTE DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO

